

ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA; **ZERBITZUAK JENDAURREAN ZABALDU GABE ETA NEGOZIAZIO BIDEZ** KONTRATATZEA

Gaia: **Altzibarko ALT-4 eremuko Urbanizazio Proiektua idaztea.**

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN GAIA

Kontratuaren gaia, espedientean zehaztutakoekin bat etorritz, hau da: **2008ko otsailaren 18an behin-betiko onarpena jaso duen Arau Subsidiarioen berrikuspen partzialean ALT-4 eremuko urbanizazio proiektua idaztea, beti ere Plan Partzialak jasotzen duen antolaketa estrukturala kontuan hartuz**, espedienteko dokumentazio teknikoarekin bat etorritz. Espedienteak kontratu-izaera du.

Kontratuaren gaiaren kodea, CPV nomenklaturaren arabera: 71410000

2. OBRAK BURUTZEKO EPEA

Ez da kontratuaren iraunaldirik ezartzen, kontratua burutzeko epea proposamena puntuatzeko irizpideetako bat izango baita.

Zerbitzua emateko epea kontratuaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egun baliodunetik hasita kontatuko da.

Zerbitzua epe horretan ematen ez bada, esleipendunak berandutzeagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa 66.000 € izango da, BEZ barne. Lehiatzaileek diru-kopuru hori hobetu dezakete.

Eskaintzak Urbanizazio Proiektuaren idazketa lan osoaren gastuak, behin betiko onarpena arte, jasoko ditu.

4. FINANTZATZEA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan.

5. NOLA ORDAINDU

Administrazioari kobrantza-agiri egokia aurkeztu eta berak onartu ondoren ordainduko da kontratuaren prezioa.

6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea, espedientean egiaztatzen denez.

7. BERMEAK

Kontratuaren behin-behineko esleipendunak behin betiko bermea eman beharko du, hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko. Kopuru hori esleipeneko zenbatekoaren % 5ekoa izango da, BEZ gabe.

Berme hori jartzeko epea egutegiko hamabost egunekoa izango da, kontratuaren esleipena jakinarazi eta biharamunetik hasita. Bermea jartzeko bidea, berriz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 84. artikuluan azaltzen diren estatik edozein izan daiteke.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 90. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik egingo da.

8. KONTRATUA BURUTZEA

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da.

Zerbitzuak egiterakoan, agiri honetan dauden baldintzak bete beharko dira, bai eta espedienteari erantsitako xehetasun teknikoak ere, halakorik egonez gero. Kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Esleipendunari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

9. ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK

Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

10. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Esleipendunaren ardura da zerbitzu-eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 198. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

11. KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du, ustekabeko arrazoiak sortzen direnean. Esleipendunak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 284.c) artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

12. ZERBITZUA HARTZEA ETA BERME-EPEA

Zerbitzua eman eta, gehienez, 30 egun pasa baino lehen, zerbitzuaren harrera formala egingo da.

Gainera, urte bateko berme-epea egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako.

Berme-epe horretan egiten diren lan edo zerbitzuetan akatsak agertzen badira, esleipenduna izango da erantzulea.

Berme-epe horretan Administrazioak eragozpenik jartzen ez badu, epea amaitutakoan esleipendunaren erantzukizuna amaitutzat joko da.

13. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

Prestazioa burutzean akatsak izan badira, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

14. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 206 eta 284. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

II. KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

16. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena negoziazio bidez egingo da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 153 eta 162. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, testu horren 158.e) artikuluan jasotako kasua baita.

Honako irizpide hauek hartuko dira oinarritzat, gero kontratuaren esleipena egiteko: prezioa eta kontratua burutzeko epea.

Aipatutako irizpideak eta kontratuari lotutako beste edozein alderdi ekonomiko, tekniko edota logistiko negoziatuko da parte-hartzaileekin.

17. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak 18.e) baldintzan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Enpresariak, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

18. PROPOSAMENAK AURKEZTEA ETA PARTE HARTZAILEEKIN NEGOTZIATZEA

Kontratazio honen espedienteak, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoak ere, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertuko dira:

LEKUA: Oñartzungo Udala, Done Eztebe Plaza 1, 20180 Oñartzun.

ORDUAK: 8:00etatik 14:00etara

EPEA: Egun baliodunetan, parte hartzeke eskabideak aurkezteke epea bukatu arte.

Gonbidatutako enpresek kartazal bakarrik aurkeztu beharko dute. Kartazalean honako hau idatziko da: "ARRAGUAKO ARR-1 B EREMUKO URBANIZAZIO PROIEKTUA KONTRATATZEKO NEGOTZIATZIO BIDEZKO LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA".

Hona hemen kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.

b) Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze- edo aldaketa-eskitura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakian, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskitura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jardura zuzentzen duten arauak. Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide- edo merkataritza-erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie.

c) Lehiatzaileak erantzukizunpeko berariazko aitorpena aurkeztu behar du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. artikuluan kontratatzeke ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitorpen horretan berariaz adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak; edo, hala egiten ez badu, egiaztagiria aurkeztuko ditu, betebeharrak horiek beterik dituela frogatzeko.

d) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan baxerik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

e) Lehiatzailearen ekonomi eta finantza-kaudimenaren eta gaitasun tekniko edo profesionalaren frogagiriak. Horretarako, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 64. eta 67. artikuluetan ezarritako bideetatik edozein erabili ahal izango da.

f) Hainbat enpresak lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa-batasuna eratuz, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Esleipena lortuz gero AEB formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiek. Bestaldek, aldi baterako enpresa-batasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko dute proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.

g) Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lehiatzaileari legokiokkeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

h) Egin beharreko lanen zehaztapen-txostena.

i) Banakako prezioen zerrenda, hala dagokionean.

j) Honako eredu honen arabera

DIRU-PROPOSAMENA

Lehiatzailearen datuak:

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea, NAN,, Telefonoa

Ordez kariaren datuak (ordezkaririk egonez gero):

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea, NAN edo IFK,, Telefonoa

..... kontratatzeko asmozk dei egindako negoziazio bidezko kontratazioan parte hartzeko gonbita jaso dudala, hona hemen nire

ADIERAZPENA

1) Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudala:
€, Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) barne. Prezio horren %....., hau da, €, BEZari dagokio. Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai eta esleipendunaren industri onura ere. Kontratua burutzeko epea honakoa izango da:

2) Arau teknikoen agiria, administrazio-baldintza zehatzen agiria eta kontratu hau arautu behar duten gainontzeko agiriak ezagutzen ditut. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.

3) Ordezkatzen dudan enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

....., 20....(e)koaren(a)

Baldintza honetako a), b), c), d), e), f) eta g) puntuetan zehaztutako dokumentaziorik gabe aurkeztu daitezke proposamenak, baina kasu horretan, behin-behineko esleipendunak behin betiko esleipena gauzatu aurretik aurkeztu beharko ditu.

Goiko a), b) eta e) puntuetan adierazitako baldintzak ziurtatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Eskaintzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko

ziurtagiriarekin, Estatuko Eskaintzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, edo Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiri batekin, SPKLaren 73. artikulua xedatutakoaren arabera. Kasu honetan, ziurtapenarekin batera, adierazitako egoerak aldatu ez direla ziurtatzen duen eskaintzailearen ardura-adierazpena ere gehitu beharko da.

Jatorrizko agiriak edo kopiaak aurkez daitezke. Kopiaak aurkeztekotan, aurretik Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu.

Gonbitean adierazitako epearen barruan jasotako eskaintzekin 16. baldintzaren arabera ezarritako esleipen-irizpideak eta kontratuari lotutako beste edozein alderdi ekonomiko, tekniko edota logistiko negoziatzen hasiko da.

Negoiazioa amaitzean, baldintzak aldatzeko konpromisoa hartu dutenek azken eskaintza aurkeztu beharko dute, ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena zein den balioetsi eta hautatzeko.

19. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Proposamenak ikusirik, eta, egoki denean, lehiatzaileekin negoziazioak egin ondoren, espediente organo eskudunari aurkeztuko zaio, esleipena egin dezan.

Behin-behineko esleipena kontratatzailearen profilean argitaratu eta egutegiko hamabost eguneko epean honakoak egin beharko ditu behin-behineko esleipendunak:

- a) egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzeko, baldin eta ez baditu agiri horiek proposamenarekin batera aurkeztu, baita kontratua burutzeko beharrezkoak dituen bitartekoak eskuratzeko konpromisoa betetzen duela ziurtatzeko dokumentua ere, hala badagokio.
- b) Behin betiko bermea.

Behin-behineko esleipena behin betiko egin beharko da hilabeteko hamar eguneko epean, goian aipatutako epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita, baldin eta esleipendunak a) eta b) puntuetan adierazitakoak betetzen baditu. Aitzitik, beteko ez balitu, behin-behineko esleipendunari ez zaio behin betiko esleipena egingo.

SPKLaren 139.2. artikulua arabera, kontratua burutzeari edo jardunbide honi uko egiten bazaio, esleipenak eragindako gastuak ezarriko ditu Administrazioak, entzunaldia eginez eta behar bezala ziurtatuz.

Kontratazio-organismoak egingo duen esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko du. Esleipendunari jakinaraziko zaio, eta honek, jakinarazpena jaso eta egutegiko hamar eguneko epean administrazio honen bulegoetara etorri beharko du, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.

Esleipendunaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta kalte-galerak ordainduko dira.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

20. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak, urriaren 30eko 30/2007 Legearen bidez onetsiak, ezarritako arauak bete beharko dira. Horiez gainera, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, urriaren 12ko 1.098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, ezarritako arauak ere bete beharko dira, eta bai herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

21. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak SPKLaren Hogeita Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

22. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorritz.